

Berdintasunezko jolasa

Hezkidetza eta espazioaren inguruko baliabide gida

Hernaniko Udala (Gipuzkoa)

Sarrera

Gida hau, 2003ko urrian, Hernaniko Udaletxeko Berdintasun Sailak biltzaturiko hezikidetza programaren zati bat da. Irakasle eta familientzako sentsibilizazio saio batzuekin hasi ginen. Bigarren fase batean, udalerriko bi ikastetxeetako espazioaren erabileraren inguruan ikerketa antropologiko txiki bat burutu genuen. Orain, hezikidetza eta espazioari buruzko errekurtso gida aurkezten dugu.

Jolas-tokian zentratu gara zenbait arrazoi direla eta:

Nabariak dira, jolas-tokiaren eremu eta erabileran neska eta mutilen arteko desberdintasunak. Erabilera eredu hauek oso gutxi aldatu dira heziketa mistoa eskoletan ezarri zenetik.

Jolas-tokiaren eraldaketa erlatiboki erraza da, hezikidetzaren beste alderdi batzuek azaltzen dituzten zailtasun eta esfortzuen ondoan (jarrera aldaketak, material didaktikoaren sorrera edo errepassoa, kurrikuloan aldaketak).

Harrigarria da berdintasunezko irizpideekin eskola espazioa eraldatzeko dagoen ekimen eskasia.

Edozein behatzailek ikusi dezakeen bezala -gehiago oraindik irakaskuntzako profesionalek- eta mutilek jolas-tokia modu oso desberdinetan erabiltzen dute. Erabiltzen dituzten espazioaren zabalera dagokionean, mutilek neskek baino eremu zabalagoak erabiltzen dituzte. Espazioaren kalitateari dagokionean, ikerketa ugarik azaldu dute, normala dela neskek espazio marjinal eta identifikazio falta duten espazioak erabiltzea, mutilek espazio zentralagoak erabiltzen dituzten bitartea.

Ondorioz, espazio bakoitzean burutzen diren aktibitateak, modu desberdinean baloratuak dira. Mutilek, alde batetik, beren jolas-garaia sozialki baloratuak diren ekitzetan ematen dute (adibidez kirolean, futbolean zehazki). Bestalde, neskek, beren jolas-garaia leku ezberdin gehiagotan ematen dute, horren baloratuta ez dauden ekintzetan, denborapasa edo entretenimentutan (goma-saltoan, kromotan jolasean, dantzan, patinatzen, hitz egiten, brilean jolasean). Neske aktibitate ugaritasunak mutilen uniformetasunarekin kontrastea egiten du, beren denbora guztia kirolean ematen dutenak, futbolean gehienbat.

Beraz, gida honen helburua, jolas-lekuaren berdintasunezko erabilera bat baimenduko duten zenbait ideia eskeintzea da. Zergatik uste dugu berdintasunezko erabilera garrantzitsua dela? Espazioa ez bait da gizarte antolaketa erberdin baten islada soilik, gainera, erbedintasun hau erreproduzitu eta betikotu egiten duelako baizik. Beste era batera esanda: espazioaren banaketak erabilera baldintzatzen du. Jolas-tokia, mutilek espazio gehiago, leku zentralagoak edo garrantzitsuagoak erabili ditzaten aurrikusten eta baimentzen bada, eta neskek, marjinalenak, argi dago, nesken eta mutilen arteko jarreraren inguruan eredu jakin batzuk transmititu eta indartzen direla. Gure proposamenak, espazio ezberdin batean oinarritzen dira, jarrera estereotipatu hauek bultzatzen ez dituenak, beste erabilera batzuk eta beste habildade batzuen ikasketa baimentzen dituenak, baloreak eta ikasleen sexuarekin zerikusirik ez duten trebetasunak.

Espazioa

Espazioa, mugak dituen eremu fisiko bezala definitu dezakegu, faktore ezberdinek baldintzatua:

Bertan egiten diren ekintzak (adibidez, etxe baten barruan espazio bakoitzeko jarduerak lekua baldintzatzen dute: logela, komuna, egongela, sukaldea).

Okupatzen duen jendeak (adibidez, enpresa batean lehendakariak leku bat okupatuko du eta langileek beste bat; hiri batean ere aberatsak edo pobreak auzo ezberdinetan biziko dira).

Mugatzen duten osakinek (hormak, ateak, kartelak, marrak, muga ikusezinak).

Ezartzen zaizkion eduki sinbolikoek (adibidez, eliza, hiriko erdia, herriko plaza).

Eraberean, espazioak ere bere barruan dagoena baldintzatzen du:

Pertsonen nortasuna: hospital batean erizaina eta gaixoa izango gara, garbitzailea, sendagilea, etxean ama, aita, semea edo alaba izango garen biratean.

Pertsonen jokaera eta jarrera: ez gara berdin konportatzen elizan eta tabernan, hospitalean eta eskolan.

Bere barnean egiten diren ekintzak: leku batzuk deskantsatzeko dira, beste batzuk, lanerako, dibertitzeko, errezatzeko.

Bere barnean egiten diren ekintzen esanahia: ez dauka esanahi berdina ardoa elizan ala

tabernan edateak.

Dudarik gabe, espazioak banatzeko balio du: haurrak hemen, zaharrak han, emakumeak leku batean, gizonak bestean, zuzendaria bulego batean, langileak gela horretan, dirudunak auzo honetan eta behartsuak beste horretan. Horrela ikusita, espazioa banaketa sozialei buruz, hierarkietaz, pertsona nahiz taldeen arteko mugetaz mintzo zaigu. Espazioaren analisiaren bitartez, gizarte baten desberdintasunak ikusi ditzakegu, talde ezberdinak sortzeko erabiltzen diren kategoriak.

Espazioaren erabilera, funtsean, bi elementu baldintzatzen dute:

Jaiotzetik, emakumeek eta gizonak jasotzen duten heziketa eta sozializazio ezberdina, beren ahalmenak eta jokabidearen garapena baldintzatzen dutena. Horrela, gizonak, gehiago mugitzea, espazio gehiago erabiltzea eta mugimendu gehiago behar duten ekintzak burutzea animatuak dira. Bestalde, emakumeak pasiboagoak izatea, lasaiagoak eta mugimendu edo aktibitate fisiko gutxiago eskatzen duten ekintzetara bultzatuak dira.

Diseinatuta dagoen modua. Eskolara bueltatuz, jolas-tokia neurri handi batean futbol zelaiak okupatzen badu, gehienbat mutilek burutzen duten ekintzetara mugatzen dugu. Bestalde, futbolari horrelako zentraltasuna emanaz, beste aktibitateak gutxiesten dira (adibidez, neskek burutzen dituztenak) eta neskak sozialki oso baloratua den espazio batetik at gelditzen dira.

Espazio baten diseinuaren atzean, bati dago erabileraren inguruko ikusmolde bat, askotan konszientea ez den arren. Diferentzia hauetaz konturatzeko, beharrezkoa da neskek eta mutilek eskola espazioaren erabileraren behakuntza sistemiko bat, denek bizi izan bait digu antzeko egoerak naturaltasun osoz. Hau, emakume eta gizon modura jarraitu behar ditugun ereduak barneratzen digulako da (gehiegizko naturaltasunez ere). Zentzu honetan, beharrezkoa da errepikatzea siniste eta eredu hauek ikasitakoak eta barneratutakoak direla, ez direla naturaren edo biologiaren ebazpen batean oinarritzen.

Ez da erraza emakumeek eta gizonak gizartean okupatzen dituzten lekuen inguruan ditugun ideial aldatzea, eta ondorioz, erabiltzen dituzten espazioen eta erabiltzeko moduen ingurukoak. Nahiz eta honek zailtasunak ekarri, berdintasunezko ikusmolde batean oinarritutako espazioaren diseinu batek, sexuen arteko berdintasunezko erlazio bat sustatu dezakeela uste dugu.

Eta eskolan zer?

Eskolak, gure gizartearen baloreak erreproduzitzen ditu, baita espazioa diseinatzeko eta

erabiltzeko moduan ere. Normalena, neskek eremu txikiagoa erabiltzea da eta beren aktibitateak leku marjinaletan burutzea da, identitate argirik ez dutenak eta indar sinboliko eskasa dutenak.

Eskola barruan espazioaren erabilera baloratzeko orduan, kontutan izan beharra daukagu:

Espazioaren zabalera

Espazioaren kalitatea

Espazioaren balorazioa

Espazioari dagozkion jarrerak eta ekintzak

Behiz faktore hauek ikertuta, erraza da espazio mota batek baimentzen dituen desberdintasunak aurkitzea, eta ondorioz, neurriak har ditzakegu.

Dagoen bibliografia eta guk Hernanin egindako landa-lanean oinarrituz, eskola espazioaren eraldaketarako proposamen batzuen landu ditugu, gure ustetan, nesken eta mutilen espazioaren erabilera berdintsuago bat erraztuko dutenak, baita beraien arteko harreman berdintsuagoa ere. Proposamen hauekin honako helburuak bilatzen ditugu:

Espazioa zenbait genero-estereotiporekin bat ez datorren moduan erabiltzea. Aipatu dugun bezala, eskola espazioek, gainditu nahi ditugun emakume eta gizonen eredu estereotikatuak bultzatzen dituzte.

Nesken eta mutilen arteko elkarrekintza-mota aldatzea. Neskek eta mutilek gutxitan elkarrengaitan dute, eta egiten dutenean, modu gatazkatsu batean, batez ere nerabezaro aurreko garaian.

Neskak kanpoko espazioak erabiltzera animatu, baita ariketa fisiko gehiago egitera ere, beren gustokoak diren jarduerak bultzatuz. Nesken artean pasibitate gehiago nabari da, nerabezaro garaian sedentariotasun maila aipagarri bat azaltzen dutelarik.

Espazioaren erabilera baldintzatzen dituzten hierarkiak apurtzea. Eskola espazioa sexu eta adinaren inguruan antolatua dago, honek dakartzan hierarkiak eta desberdintasunak kontutan izan gabe (mutilen espazioak balore handiagoa dute nesken espazioek baino, eta helduen espazioan txikien espazioak baino handiagoa).

Mutilentzako kirol -eta lehia- jokoen aurrean alternatibak ematea. Alde batetik, mutilek burutzen dituzten ekintza fisikoak indarra eta lehia eskatzen duten kirolek mugatzen dira, beste habilitade batzuk garatzen dituzten ariketa fisikoak alda batera

utziz (adibidez, dantza). Bestalde, burutzen dituzten kirolak nahiz jokoak, gehiegizko lehiakortasuna dute, hezikidetzak, zainketa eta sentsibilitatea bezalako baloreekin txoke egiten dutenak.

Espazio-mota gehiago eskaintzea, jarduera-mota gehiago egiteko edo espazioen erabilera-motak ere ugartzeko. Jolas-tokia ia guztiz kirol ekintzak burutzeko lekuz osatuta dago. Gehiengoak burutzen dituen kirol ekintzak gustoko ez dituzten neska eta mutilentzako erakargarriak diren alternatiba falta nabari da.

Espazioak erraz aldatzeko bitartekoak ipintzea. Jolas-tokiaren espazioaren diseinua oso zurrina da, eta aktibitate kantitate txiki eta mugatu bat soilik baimentzen du. Espazioaren eraldaketa erraztu beharko litzateke, behar ezberdinetara moldatu ahal izateko.

Proposamenak:

Ondoren azalduko ditugun proposamenak, Hernaniko bi zentruetan egidako ikerketan oinarrituak dira. Hori dela eta, helburua hasteko puntu bat izatea da, ideia irudimentsuekin osatua izan behar dena, anitzak eta egoera eta zentruaren behar ezberdinetara egokituak. Zentzu honetan, arkitekturan, paisajismoan eta heziketan profesionalak direnen laguntza edo lankidetzak asko erretzuko litzuzke aldaketak.

Proposamenak bi kategoriatan banandi ditugu:

Espazioaren diseinua: eskola entzuko espazioa eraldatzeko ideiak, bai barnealderako baita kanpoalderako ere.

Espazioaren erabilera: jolas-tokian burutu daitezkeen ekintzen proposamenak.

Espazioaren diseinua:

Kirole ekintzetarako espazio gutxiago erabiltzea.

Kanpoko espazio gehienak kirolerako prestatuak daude. Horrek dakarren arazoetako bat, pertsona gutxi batzuk bakarrik (ekipoetako kideek) erabili ditzaketela da. Aukera bat, espazioak mugatzen dituzten murrak desagertaraztea edo ahultzea litzateke, beste helburu batzuetarako erabiliak izan daitezkeen. Komenigarria iruditzen zaigu espazioak beste modu batean antolatzea; espazioak modu ekitatiboagoan banatu beharko lirateke eta ez litzateke diskriminatu behar kantzak erabiltzen ez dituztenak (edo erabili ezin dituztenak). Horretarako kirol kantzak bat bakarrik utzi daitezkeen baldin eta beste kirol-kantzak beste erabilera batzuetarako erabiltzen (dinamizatze) badira. Horrela, hainbat

taldek aldi berean erabil ditzaketen leku gehiago izango dira.

Kiroletarako ez diren kanpo-espazioak egokitzea (parkeak, bankuak)

Iruditu zaigu parke-eremu bat egokitzea (posible denean) konponbide on bat izan daitekeela kanpoaldeari kirol-erabilera ez den beste erabilera bat emateko. Alde horretatik, interesgarria izango litzateke hainbat area (txoko) sortzea, hainbat talde gustura egon daitezen. Beste joko eta jarduera fisiko batzuk sartzea ere interesgarria izango litzateke. Neskei gustatzen zaizkien jarduerak bilatu behar dira, nahitaez kirol – edo lehia– jarduerak izan behar ez badute ere.

Espazio estali gehiago egokitzea

Lekuak dibertsifikatzeko ideiarene haritik, interesgarria izango litzateke kanpoaldean espazio estali gehiago antolatzea. Espazio horiek hainbat jardueratarako prestatuak egon beharko lukete edo erraz molda daitezkeenak izan beharko lukete (hitz egiteko, dantza egiteko, jokoren batean aritzeko, ariketa fisikoren bat egiteko lekuak).

Esertzeko leku gehiago prestatzea

Garrantzitsua dirudi hitz egiteko leku atseginak antolatzea. Txokoak antolatzea, hain zuzen ere giro desberdinetako txokoak eta ikasleek erraz aldatu edo dekoratu ditzaketen txokoak antolatzea kanpo-espazioaren erabileraren alternatibetako bat izan liteke.

Barruan area desberdinak eta bereziak sortzea

Denbora librerako askotan barne-espazioa denez, gure iritziz garrantzitsua da area desberdinak antolatzea jarduera desberdinetarako edo giro desberdinetarako.

Barne-espazioan lekuak antolatzea musika entzuteko eta dantza egiteko

Komenigarria litzateke barne-espazioetan egin daitezkeen jarduerak erraztea; musikarekin lotutako jarduera guztiak esaterako (entzutea, jotzea, dantzatzea). Dantza egitea izan daiteke neskek gustura egingo luketen beste jarduera bat. Gainera, kontutan izan beharra daukagu dantzatzea eta musika entzutea neskei nahiz mutilei gustatzen zaien ekintzak direla, beren arteko elkarrekintza bultzatuz.

Espazioei hainbat erabilera emateko material mugikorrek ematea (espazioak aldagarriak bihurtzea)

Kasu guztietan, material mugikorrek erabiltzea oso interesgarria iruditzen zaigu, material horiei esker espazioa talde bakoitzak behar duenerako alda daitezkeelako. Neskek ekintza fisiko gehiago egin dezaten motibatuzko, beren eskura, atari garaietan eskatu ahal izango lukete material gehiago jartzea komenigarria izango litzateke (gomaz, sokaz eta pilotaz gain).

Espazio atseginagoak sortu.

Ikasleak jolas-lekuan gustora sentitzea nahi badugu, leku atsegina izatea lortu behar dugu. Zentzu honetan, materialak aldatzea (denak porlanezkoak izan ez daitezen), zona berdeak sartu, espazioa banatzen duten hesiak eta hormak deuseztu.

Espazioaren erabilera:

Espazioen erabilera arautzea, ordutegi batzuen arabera

Aisialdirako espazio hauen erabilerarako aukerak ez dira berdinak guztientzako. Helduek bere gogoaz ezartzen dute besteen gainetik. Hori, ordea, ordutegiak antolatuta konpon daiteke, erabilera neurtuz, eguna eta ordua emanaz, sexu eta adin guztiei aukera berdinak emanaz.

Nesken espazio eta aktibitateak baloratu

Onartu eta baloratzeaz gain, ekintza hauek denentzako interesgarriak diren ekintza bezala onartuak izan behar dira, hauetako askok neskentzako nahiz mutilentzako interesgarriak diren habilitadeak lantzen bait dituzte (adibidez, dantzaren bitartez espresibitatea eta motrizitatea).

Lehiarik ez duten jokoak, joko mistoak eta lankidetzarako jokoak sartzea

Espazio era berri batean erabili ahal izateko, jarduera berriak sartu behar dira. Ikasleei joko desberdinak azaltzea eta ematea interesgarria izango litzateke; lehiarik eskatzen ez duten jokoak eta neskak eta mutilak batera parte har dezaketen jokoak, hain zuzen. Testuinguru mistoetan elkarrekin aritzera behartzeko modu bat izango litzateke. Horretarako, pertsona dinamizatzailearen irudia funtsezkoa da, dinamizazioa irakaskuntzarako orduen barruan egin daiteke, aisialdirako orduak alde batera utziaz. Era berean, ikasleek espontaneoki burutzen dituzten ekintza mistoak behatzea eta indartzea beharrezkoa izango litzateke (mistoak, baina ez oposiziozkoak, neskak mutilen aurka).

Azpiegitura eta espazio handiak eskatzen ez dituzten kirol-joko errazak gehiago sartzea (pala, tenisa, goma)

Espazioaren erabilera debertsifikatzeko modu erraz bat da.

Talde mistoen (adin eta sexuena) ekitaldiak

Sexuan eta adinean oinarritzen diren taldeek bultzatzen dituzten banaketa eta hierarkiak desagiteko era bat litzateke. Era berean, sexu eta adin ezberdinetako ikasleen artean loturen sormena bultzatuko luke, batez ere ekintzak kurtso osoan zehar burutzen badira, eta ez momentu puntualetan soilik, honek taldekideen artean erlazioak erraztuko lituzkeelarik. Nortasuna duten zeharkako taldeak antolatu ahal izango lirateke (talde bakoitzak izango lukeen izenaren arabera).

Talde txiki mistoen ekintzak

Talde handiek ekintza hierarkikoak edo oposiziozkoak baimentzen dituzte, talde barruan aliantzak eta kategoria ezberdinak ezartzen dituztelako. Komenigarria izango litzateke, oso talde txikiekin ekintzak antolatzea, non gizabanakoa garrantzitsuagoa den kategoria batenganako pertenezia baino (“txikiak”, “neskak”, “mutilak”). Baita ere, pertsona gehiagoren presentziak, “lekukoarena”-k, jarrera sexistak edo diskriminatorioak baimentzen baitituzte.

Ikasleak beren arteko ezberdintasunen inguruan hausnartzea

Espazio baten erabileraren inguruko jarrera aldaketa probokatu edo indartu daiteke, egoeraren ezagutzaren bitartez. Komenigarria litzateke geletan gaiaren inguruan eztabaidak, gogoetak, jokoak eta antzerkia antolatzea, non ikasleek ezberdintasunak eta honek dakartzan injustiziei buruzko lanen bat egingo luketen. Hau, adin eta taldearen ezaugarrien arabera, modu ezbedinetan egin daiteke.

Espazioaren erabileran eredu berriak

Dinamizatzailea pertsona giltzarria da, bereziki espazioen erabileraren aldaketa-prozesu baten hasieran, joera betiko ohiturak betikotzea delako. Pertsona hori bereziki garrantzitsua da joko eta jarduera berriak sartzeko, eta baita ere espazioaren erabilerari buruzko arau berriak errespetarazteko. Ikasleei eredu interesgarri bat ere eman diezaieke. Dinamizazio hau, irakaskuntza orduen barruan eman daiteke, ekintza ezberdinen bitartez, aisialdirako orduetan burutu beharrik eta horretarako pertsona berezi bat ezarri beharrik gabe.

Errekurtsoak:

Espazio fisikoaren gaia maiztasun handiarekin azaltzen da hezikidetzaren inguruko literaturan, baina testu gutxik lantzen dute zehaztasunez. Ondorengo orrietan, zehaztasunez lantzen duten errekurtsoen selekzio bat azaltzen dugu (liburuak eta artikulak gehienbat), bai modu teoriko batean (gutxiengoa), baita modu praktiko batean ere. Badaude ere beste testu batzuk, generoaren plateamendutik idatziak ez dauden arren, neska eta mutilen arteko heziketa berdintsuago bat indartzeko elementuak eskeintzen dituztenak.

Gustatuko litzaiguke, materialak hauek irakasleari gai honen inguruan erreflexionatzeko balio izatea, eta hobekuntzak burutzeko balio izatea. Errekutso hauetarako sarrera erraza dela eta, asko internetetik jeitsiak izan daitezke dohainik, horretan lagundu dezake.

Materialak bi bloketan banatu ditugu:

Espazioaren diseinua
Espazioaren erabilera

Espazioaren diseinua

Ikusi dugu espazioak neska eta mutilen arteko ezberdintasunak eraikitzerako orduan duen garrantzia. Hala ere, ia ez dugu errekurtsio zehatzik aurkitu, eskolak nola diseinatu azaltzen dutenik.

Jolas-tokiei dagokienean, Adarra Pedagogia Erakundeak (Gasteiz) landutako liburuki zoragarriko zenbait orri aipatu nahi ditugu, non habilitade motrizen garapenerako genero markarik gabeko elementuen erabileraz behin eta berriz aritzen den, adibidez: horma-barrak, eskalatzeko sokak, txirristrak edo plataformak:

Adarra Pedagogia Erakundeak (1995) *Haur jolasa hezkidetzan. Curriculum-materialak. 3-8 urte*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 83-90.

Planteamentu oso orokor batetik, honako artikulua honek jolas-tokietako espazio atsegino eta sustagarriago bat lortzeko zenbait arau batzuk ematen ditu:

Larraz, Alfredo, B.; Figuerola, Joan (1988) "El acondicionamiento de los patios de recreo", *Cuadernos de Pedagogía*, n.º 159.

Bestalde, generoaren ikuspegi batetik haurrentzako parkeak diseinatzeko zenbait esperientzia aintzindari aipatzea interesgarria dela iruditzen zaigu. Leku hauetan erabilitako zenbait irtenbide ("futbol kaiola"ren ordez, irekiagoak, neutroagoak eta balio anitzekoak diren jolas-zonak, aldi berean erabili daitezkenak; gutxiengoak praktikatzeko kirolak praktikatzeko baliabideak sartu; neska-mutil txikiak jolastu daitezkeen leku aproposak sortu; neska-mutilen parte hartzea espazioen diseinuan) eskolako espazioetan aplikatu daitezkeela uste dugu. Biziki gomendatzen ditugu:

Irschik, Elisabeth (2005) "Genero zeharkakotasuna Vienaren hirigintza plazagintza", in *Jardunaldiak "Hirien plangintza generoa kontuan izanik"*, Gasteiz, Bizkaiako Foru Aldundia, 100-102.

"Gender sensitive park design, Vienna", in Best Practice Database, UN-Habitat y Together Foundation [honako helbidean eskuragarri: <http://www.bestpractices.org/database/bp_display_best_practice.php?best_practice_id=294>, 2005/VIII/9an kontsultatua].

Espazioaren erabilera

Espazioa, eskolako antolaketan funtsezkoa den zerbait da eta irakasleek -nahita edo nahigabe- klaseetan erabiltzen duten errekurtsu bat. Erabilera, edozein gairekin erlazioan aztertua izan daiteke (edo izan beharra dauka), nahiz eta batzuk, Soin Heziketan adibidez, gehiago erabiltzen duten, espazioaren erabilera intentsiboa dela eta. Gainera, gai honetako klaseak, sarritan bidegabek "maria" modura hartuak izan dira, ikasleen estereotipoak eta jarrera sexistan ikertu eta zuzentzeko bikainak diren biartean, batez ere, gorputzarekin erlazio zuzena duten haiek (mugimenduzko trebetasunak, indarra, irudi pertsonala). Guzti honen ondorioz, Soin Heziketaren barruan, hezikidetzaren ikuspuntutik egindako literatura ugari izatea eragin.

Gaiean sakontzeko honakoak balio dute:

Vázquez Gómez, Benilde (et.al) (2000) *Educación física y género: modelo para la observación y el análisis del comportamiento del alumnado y el profesorado*, Madrid, Gymnos.

Scraton, Sheila (1995) *La educación física de las niñas: un enfoque feminista*, Madrid, Morata.

García, M; y Asins, C. (1994) *La coeducación en Educación Física*, serie "Cuadernos de Coeducación", Barcelona, Institut de Ciències de l'Educació de la Universitat Autònoma de Barcelona.

Gai honetara urbiltzeko beste modu bat, eskola etnografiaren bitartez da. Jarraian aurkezten duguna, Soin Heziketa klase mistoan emakumezko eta gizonezkoen gorputzak nola itxuratzen direnaren inguruko behaketak jasotzen ditu. Argentinan dago burutua, baina liburuak aipatzen dituen ekintzak, guren inguruko edozein patiotak gertatzen dira:

Scharagrodsky, Pablo Ariel (2004) "Juntos pero no revueltos. La educación física mixta en clave de género", *Cuadernos de Perquisa*, nº121, pp. 59-76 [honako helbidean eskuragarri: <<http://www.scielo.br/pdf/cp/v34n121/a04n121.pdf>>, 2005/VIII/17an kontsultatua].

Ikusmolde zalanago batetik, honakoak:

López Aguado, Emilio (2005) "Coeducación e igualdad de sexos en el área de Educación Física. Propuesta para una educación no sexista", *Lecturas: Educación Física y Deportes*, nº81 [honako helbidean eskuragarri:

<<http://www.efdeportes.com/edf81/coed.htm>>, 2005/VIII/17an kontsultatua].

Navarrete Morales, Gerardo; eta Navarrete Morales, Almudena (2002) “La coeducación en el área de Educación Física. Intervención educativa”, *Lecturas: Educación Física y Deportes*, nº53 [honako helbidean eskuragarri: <<http://www.efdeportes.com/efd53/coef.htm>>, 2005/VIII/17an kontsultatua].

Soin Heziketaren barruan, kirol alternatiboetan zentratuko gara. Besteak beste, neske eta mutilen berdintasuna sustatzeko pentsatua izan den bat: korbfbal¹-a. Bere erabilkortasuna eta oinarritzko arauak oso ondo azalduak daude honakoetan:

Gumellas, Montserrat; eta Padró, Francesc (2002) “El “korfbal”, coeducación y cooperación”, in *Género y educación. La escuela coeducativa*, Barcelona, Graó, 103-110.

Informazio gehiago honakoetan:

Cumellas, Monserrat; eta González, Jesús (2000) “El korbfbal, un deporte ideal para practicar en los centros de enseñanza”. *Lecturas: Educación Física y Deportes*, nº25 [hemen eskuragarri: <<http://www.efdeportes.com/efd25/korbfbal.htm>>, 2005/VIII/17an kontsultatua].

International Korfball Federation: <<http://www.ikf.org>>.

Kirol alternatiboek badute abantaila bat: berritasuna dela eta neska eta mutilak erakartzen dituela da, baina batia gutxiengoaren edozein kirolek dituen desabantailak ere. Ezagutzera emateko helburuarekin, erakustaldiak eta konpetizio publikoak prestatu daitezke, madrileko herri ezberdinetan antolatzen diren hauek bezala:

Encuentros de Juegos y Deportes Alternativos por la Igualdad: <<http://www.apefadal.org/igualdad.htm>> [2005/VIII/22an kontsultatua].

Jakina, beti ere beste kirol bat hartu daiteke eta bere arauak erabilera berdintsuago bat eskeini dezan eraldatu. Estrategia honek eskeintzen dituen erabilera didaktikoak oso ugariak dira, adibidez:

Gómez Rijo, Antonio (2004): “Aquí jugamos todos! Modificaciones en un juego deportivo alternativo para fomentar la coeducación”, *Revista de Educación Física: Renovar la Teoría y la Práctica*, nº96, 35-38.

1 Korfball-a talde mistoetan jokatzen da (lau neska eta lau mutil bakoitzean), helburua kontrakoek saskian baloia sartzea da.

Soin Heziketa kirol klaseen bitartez irakatsi daiteke, baina baita dantzaren bitartez. Hona hemen proposamen pare bat:

Ramírez Segura, Eduardo; eta Ramírez Segura, Francisco José (2002) “Coeducación a través del baile deportivo. inclusión en los planes de estudio”, *Espacio y Tiempo. Revista de Educación Física*, nº35-36, 2002, 43-46.

Vázquez Fernández, José Luis (1998) “Danzas colectivas. Una posibilidad de trabajar juntos la convivencia”, *Cadernos de Pedagogía*, nº273, 15-17.

Kirolak eta dantzak interes handia duten errekurtso didaktikoak dira, beraz, ikastorduetatik at zabaldu daitezke eta patioan eta aisialdian orokorrean sendotu daitezke. Jokoekin berdina gertatzen da, heziketa formalean nahiz informalean baliagarriak direnak. Haur jokoekin analisi bat, hezikidetzaren ikuspuntutik egina honako honetan topatu daiteke²:

Adarra Pedagogia Erakundeko (1995) *Haur jolasa hezikidetzan. Curriculum-materialak. 3-8 urte*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Liburu zoragarri honetan, hezitzailearen paperaren inguruan aritzen da, txikien jolasarekin erlazioan, bai patioan eta baita gela barruan ere, lehenago aipatu dugun gaia.

Jokoa hezikidetzaren ikuspuntutik ikertzen duen lerroari jarraituz:

Torres Fernández, Gemma; eta Arjona, M^a Carmen (1993) “Coeducación”, in *Temas transversales del currículum 2. Educación Ambiental, Coeducación, Educación del Consumidor y el Usuario*, Sevilla, serie “Colección de Materiales Curriculares para la Educación Infantil”, Consejería de Educación y Ciencia de la Junta de Andalucía, 126-133. [<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/publicaciones/55311/libinf03.pdf>], 2005/VIII/17an kontsultatua].

Orrri hauetan, era laburrean neskek eta mutilek patioaren erabilera ezberdinak azaltzen dira, eta haur jokoetan jarrera sexistak aurkitzeko zenbait ariketa azaltzen dira.

Irakaskuntzan profesionalen artean, berdintasuna bultzatzen duten jokoak sortzeko arduraren ondorioz (orokorrean, ez genero alorrean soilik), **joko kooperatibo** izeneko jokoekin garapen aipagarri bat gertatu da. Zenbait errekurtso aipatuko ditugu, non erreflexio teriko motz batzuen ondoren, proposamen ugari aurki daitezkeen:

Guitart, Rosa M^a (2003) *Jugar y divertirse sin excluir*. Recopilación de juegos no competitivos, Barcelona, Graó.

2 Espazioen diseinuan ere aipatu dugu.

Guiart, Rosa M^a (1990) *101 juegos. Juegos no competitivos*. Barcelona, Graó.

Juegos para la cooperación y la paz:

<http://www.ctv.es/USERS/avicent/juegos_paz#juegos_paz/#Juegos%20de%20presentaci%F3n> [2005/VIII/17an kontsultatua].

Juegos de tiempo libre: <<http://www.juegosdetiempolibre.com>> (honako bidea jarraituz: “Índice” > ”Tipos” > “Juegos cooperativos”) [2005/VIII/17an kontsultatua].

Aparteko aipamen bat merezi du Intered Fundazioak Donostian duen joko kooperatiboetarako errekutso zentruak. Hor, aholkularitza pedagogikoa, dokumentazioa eta mahai jokoak aurki daitezke. Kontakturako datuak honakoak dira:

Centro de recursos en juegos cooperativos
Interes-Euskal Herria
Pº Francia, 8. 20012 Donostia
Tfnoa.: 943 27 90 44
Helbide Elektronikoa:<intered@euskalnet.net>

Bukatzeko, aipatu Andraisia Ekimenak eta Urtxintxa Eskolak (Bilbao) heziketa informaldien, astialdiaren eta animazio soziokulturalaren inguruan dituzten pare bat errekutso.

Andraisia Ekimena eta Urtxintxa Eskola (2003) *Gazteentzako aukera berdintasuna hezkuntza ez formalean*, Bilbo, Bizkaiako Urtxintxa Eskola.

Bigarrena, astialdiko taldeetan sexismoa ekiditeko gida txiki bat da, formalagoak diren testuinguruetan aplikatu daitekeelarik:

Emaisia Elkarte (2004) *Xake mate! Astialdian sexismoari aurre egiteko aholku sorta*, Bilbo, Urtxintxa Eskola.

Eskerrak

Gida hau burutzeko materialak eskeini dizkiguten pertsonari eskerrak eman nahiko genizkie, bereziki Elisabeth Irschik-i (Vienako Planifikazio eta Eraikuntza Bulego Koordinatzaileko arkitekto eta plangintza-egilea), Antonio Gómez Rijori (Tenerifeko Haur eta Lehen Hezkuntzako Agache eskolako Soin Heziketako irakaslea) eta Emaisia Elkarteari (Bilbao).

Gainera, Langile Lhko irakasle, ikasle eta gurasoei eskerrak eman nahiko genizkie. Hernaniko

(Gipuzkoako) zentruetan hezkidetza tailerretan azaldutako iritziak eta esperientziak, orri hauek idazteko inspirazio izan dira.

© Farapi S.M., 2005/08/26.